



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko otsailaren 29a

27. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Barañaingo Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2014ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Barañaingo Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2014ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 16an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak emandako fiskalizazio txostena, Barañaingo Udalari buruzkoa, 2014ko ekitaldikoa, ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2015eko azaroaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Barañaingo Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2014ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

I. Sarrera (3. or.).

II. Helburua (5. or.).

III. Norainokoa (6. or.).

IV. Iritzia (7. or.).

IV.1 2014ko kontu orokorrari buruzko finantza-irritzia (7. or.).

IV.2. Legezketasunaren betetzeari buruzko iritzia (8. or.).

IV.3. Udalaren 2014ko abenduaren 31ko egoera ekonomiko-finantzarioa (8. or.).

IV.4 Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzea (12. or.).

IV.5. Aurreko txostenetan Kontuen Ganberak emandako gomendioen betetze-maila. (13. or.).

V. Udalaren 2014ko kontu orokorraren laburpena (14. or.).

V.1. 2014ko ekitaldiko aurrekontu bateratuaren likidazioaren egoera-orria (14. or.).

V.2. 2014 ekitaldiko aurrekontu bateratuaren emaitza (15. or.).

V.3. Diruzaintza-gerakinaren egoera-orria 2014ko abenduaren 31n (15. or.).

V.4. 2014ko abenduaren 31ko egoera-balantze bateratua (16. or.).

V.5. Galeren eta irabazien kontu bateratua 2014ko abenduaren 31n (17. or.).

VI. Udalari eta haren menpeko enteei buruzko iruzkinak, ondorioak eta gomendioak (18. or.).

VI.1. Alderdi orokorrak (18. or.).

VI.2. Langileak (19. or.).

VI.3. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak (20. or.).

VI.4. Transferentzien ondoriozko gastuak (21. or.).

VI.5. Inbertsioak (22. or.).

VI.6. Aurrekontuko diru-sarrerak (23. or.).

VI.7. Hirigintza (25. or.).

VI.8. Barañaingo Auditorioaren Fundazioa. (26. or.).

I. eranskina. Barañain Auditorioa Fundazioaren kontuak.

II. eranskina 2014ko ekitaldiko kontu orokorraren oroitidazkia.


(Oharra: Aipatutako eranskinak foru parlamentarien esku daude Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan eta honako web helbidean: www.cfnavarra.es/camara.comptos).

I. SARRERA

Kontuen Ganberak, Bere jarduera-programari jarraituz, Barañaingo Udalaren 2014ko ekitaldiko kontu orokorraren arauzkotasunari buruzko fiskalizazioa egin du.

Barañaingo udalerriak 1,4 km²-ko azalera dauka, eta 20.458 biztanle dauzka 2014ko urtarrilaren 1ean.

Udalaren eta haren mendeko erakundearen osaera honako irudi honetan ikusten da:



2014ko ekitaldia ixtean, erakunde horien funtsezko datu ekonomikoak honako hauek ziren:

• Administrazio publikoaren arloa, Barañaingo Udalak berak eta haren erakunde autonomoek, "Lagunak" Udal Zerbitzua eta "Luis Morondo" Musika Eskolak osatua; hauek dira erakunde hauen daturik garrantzitsuenak (eurotan):

Entitatea	Aitortutako betebeharrak	Aitortutako eskubideak	Langileak, 2014-12-31n
Udala	12.818.025	16.109.113	120
"Lagunak" Udal Zerbitzua	1.809.856	1.840.957	15
"Luis Morondo" Musika Eskola	872.027	878.327	19
Bateratzearen doitzeak	(376.000)	(376.000)	-
Guztira	15.123.908	18.452.397	154

Udalak bere erakunde autonomoentzat 2014an egin dituen ekarpena hau izan da:

Entitatea	Ekarpena
"Lagunak" Udal Zerbitzua	20.000
"Luis Morondo" Musika Eskola	356.000
Guztira	376.000

- Fundazioen sektore publikoa. Udalak, 2003ko urtarrilean, Barañain Auditorioa Fundazioa eratu eta bere babespean ezarri zuen; fundazio honen xedea da Barañaingo Arte Eszenikoen Zentroa kudeatzea eta administratzea. Fundazioaren balantzea eta emaitzen kontua I. eranskinean daude jasota. 2014ko abenduaren 31n, fundazio honek 6 langile zituen bere plantillan.

- Udala Iruñerriko Mankomunitatean sartuta dago, eta haren bidez ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri-hondakin solidoen kudeaketa- eta tratamendu-zerbitzuak, eskualdeko hiri-garraioak eta ibai-parkearen kudeaketakoak. Taula honetan erakusten da zerbitzu horiek guztiak Udalari 2014ko ekitaldian ekarri dioten gastua:

Zerbitzuak	Udalarentzako gastuak 2014an
Eskualdeko hiri-garraioa	369.911
Ibai parkea	57.783

Laburbilduta, ematen dituen zerbitzu publiko nagusiak eta haiek emateko modua ondoko taula honetan ageri dira:

Zerbitzua	Udala	Erakunde autonomoak	Mankomunitatea	Zerbitzu kontratuak
Zerbitzu administratibo orokorrak	x			
Musika eskola		x		
Hirigintza	x			
Uraren ziklo integrala			x	
Hiri hondakinak			x	
Hiri-garraioa			x	
Bideak garbitzea				x
Parkeak eta lorategiak	x			
Udal kiroldegia	x			x
Atletismo-pistak	x			x
Retegui frontoia		x		
Kirol jardueren kudeaketa	x	x		x
Liburutegia	x			
Ludoteka	x			x
Etxeko arreta	x			x
Gizarte enplegu babestua	x			
Kultur etxea	x			
Hezkuntza	x			
Euskara	x			
Berdintasuna	x			x
Gazteria	x			x
Herritarrentzako Arreta Bulegoa	x			
Errolda	x			
Herritarren parte-hartzea	x			
Lan-mundura sartzeko Bulegoa	x			x
Immigrazio Zerbitzua	x			x
Telezentroa	x			
Mentor Aretoa	x			
Diru-bilketa	x			
Diru-bilketa exekutiboa	x			x

Toki entitateari 2014ko ekitaldian aplikatzekoa zaion araubide juridikoa funtsean honakoek osatzen dute: Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei bu-

ruzko 2/1995 Foru Legea eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1995 Legea, bai eta sektorekako araudi indarduna ere.

2014ko ekitaldiko proiektuari 2013ko abenduaren 27ko osoko bilkuran eman zitzaion hasierako onespena; behin betiko onespena, berriz, 2014ko otsailaren 10ean eman zitzaion. 2014ko kontuei dagokienez, Udalaren Osoko Bilkurak 2015eko apirilaren 28an onetsi zituen.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean, txostenaren helburuak azaltzen dira, eta hirugarrenean, berriz, egindako lanaren norainokoa. Laugarrenean, 2014ko kontu orokorraren inguruko gure iritzia agertzen da. Bosgarrenean, kontu orokorraren laburpena ageri da, bere egoera-orri finantzario nagusiekin. Azkenik, seigarren atalean, erakundearen antolaketa eta Udalaren barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorioztapen eta aholkuak biltzen dira, arloz arlokoak.

Gainera, bi eranskin daude: bata, Barañain Auditorioa Fundazioaren kontuekin –kontu horiek, formalki, Udalaren kontu orokorraren atal bat ez badira ere, eranskin gisa sartzen dira txosten honetan– eta bestea Udalak 2014ko ekitaldiko kontuei buruz egindako oroitidazkia jasotzen duena.

Barañaingo Udaleko eta haren menpeko erakunde autonomoetako langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Barañaingo Udalaren 2014ko ekitaldiko Kontu Orokorraren arauzkotasunaren fiskalizazioa egin dugu.

Txostenaren helburua da honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea:

- Ea Barañaingo Udalaren 2014ko ekitaldiko kontu orokorrak irudi zehatza erakusten duen alderdi esanguratsu guztietan, hots, ondareari, gastu eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta 2014ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldian egindako eragiketen emaitzei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraikiz.

- Zenbateraino bete den Udalak 2014an izandako jarduerari aplikatzekoa zaion legedia.
- Udalaren finantza-egoera 2014ko abenduaren 31n.
- 2014ko ekitaldirako aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko helburuen betetzea, eskuragarri dagoen informazioari jarraituz.
- Ganbera honek 2013ko fiskalizazio-txostenean eman zituen gomendioak noraino aplikatu diren.

Udalak eta haren menpeko entitateek ezarritako barne-kontrolako sistema, sistema administratiboa eta kontabilitate- nahiz kudeaketa-sistemak hobetu edo/eta osatze aldera.

III. NORAINOKOA

Barañaingo Udalaren 2014ko ekitaldiko kontu orokorrak hauek ditu osagai nagusiak:

- Toki entitatearen beraren kontua eta haren erakunde autonomoenak: Aurrekontuaren likidazioari buruzko egoera-orria, ekitaldiko aurrekontu-emaitza, diruzaintza-gerakina, egoera-balantzea eta emaitzen kontua.

- Kontu orokorraren eranskinak: egoera-orri bateratuak (Udala eta erakunde autonomoak), zorraren egoera eta kontu-hartzailetzaren txostena.

Indarrean dagoen legediari jarraituz, Barañain Auditorioa Fundazioaren kontuak, zeinak kanpoko enpresa batek auditatu baititu, txosten honen eranskin gisa jarri ditugu, Udalaren kontu orokorrean sartzen ez badira ere.

Erakunde autonomoen kudeaketa administratiboa eta kontabilitateari eta aurrekontuari dago-kiona modu deszentralizatuan egiten da.

Lana Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan garatutako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta araei jarraituz gauzatu da; zehazki, honakoak aplikatu dira: "Fiskalizazio edo auditoria finantzarioaren oinarrizko printzipioak" izeneko ISSAI-ES 200 araua eta "Betetzeari buruzko fiskalizazio- edo auditoria-printzipio nagusiak" izeneko ISSAI-ES 400 araua. Inguruabarren eta azterlanaren helburuen arabera, beharrezkotzat jo ditugun hautaprobea edo prozedura tekniko guztiak aplikatu ditugu; prozedura horien artean laginen teknika edo kontusail edo eragiketa jakin hautatuak aztertzeke teknika erabili dira.

Zehazki, Udalari eta bere erakunde autonomoei dagokienez, aurrekontuen eta finantzen egoera-orrien edukia eta koherentzia aztertu dira, bai eta aplikatutako oinarrizko prozedura administratiboak ere; ebaluatu dira, halaber, antolaketa, kontabilitate eta barne-kontrolleko alderdi nagusiak.

IV. IRITZIA

Barañaingo Udalaren 2014ko ekitaldiko kontu orokorra fiskalizatu dugu. Haien kontabilitatearen egoera-orriak laburbilduta jaso ditugu txosten honetako V. atalean.

UDALAREN ERANTZUKIZUNA

Alkatea da kontu orokorrak egiteko eta aurkezteko ardura duena. Halako moduz egin behar ditu non leialki irudikatuko baitituzte Udalaren aurrekontu-likidazioa, ondarea, emaitzak eta finantza-egoera, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko arau-esparruarekin bat; erantzukizun horrek hartzen ditu iruzurraren edo akatsen ondoriozko ez-betetze materialetatik libre dauden kontu orokorrak egin eta aurkezteko beharrezkoa den barne kontrolaren kontzeptzioa, ezarpena eta mantentzea.

Udalak, gainera, bermatu beharko du finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela indarreko araudiarekin.

NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea erantsitako kontu orokorren fidagarritasunari buruz eta gure fiskalizazioan oinarrituta egin diren eragiketen legezkotasunari buruz. Horretarako, hura egin dugu Kanpo Kontroleko Erakunde publikoen fiskalizaziorako oinarrizko printzipioen arabera. Printzipio horiek exijitzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta exekuzioa egin dezagula ere, honako helburuarekin: kontu orokorretan arrazoizko segurtasun bat lortzea eta haietan akats materialik ez egotea; eta finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izatea.

Fiskalizazio batek eskatzen du prozedura batzuk aplika ditzagula auditoria-ebidentzia bat lortzeko zenbatekoei eta kontu orokorretan adierazitako informazioari buruz, bai eta eragiketen legezkotasunari buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela kontu orokorren akats materialei buruzko arriskuen balorazioa, akats hori iruzurraren nahiz akatsaren ondoriozkoa denean eta legezkotasunaren ez-betetze aipagarrien ondoriozkoa denean ere. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan –entitateak kontu orokorrak egin ditzan garrantzitsua baita– inguruabarren arabera auditoria prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez. Auditoria batek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasuna eta arduradunek egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizkotasuna, bai eta kontu orokorren aurkezpena ere, oro har.

Gure ustez lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia jasotzen du gure fiskalizazio-iritzia emateko.

Finantzen eta legezkotasunaren betetzeari buruzko fiskalizazioaren emaitzatik honako **iritzia** eratortzen da.

IV.1 2014ko KONTU OROKORRARI BURUZKO FINANTZA-IRITZIA

IRITZIAREN OINARRIA, SALBUESPENEKIN

Udalaren eta haren erakunde autonomoen ondasunen inbentarioa 1992koa da, eta eguneratu gabe dago oraindik; horregatik, ezinezkoa izan da egoera-balantze bateratuko "ibilgetuaren" kontabilitate-saldoaren arrazoizkotasuna egiaztatzea; saldo hori, 2014ko abenduaren 31n, 35,94, milioi eurokoa zen. 2014an kontusail hori 34,24 milioi eurokoa izan zen.

IRITZIA

Gure iritzian, "Iritziaren oinarria, salbuespenekin" lerrokadan azaldutako egitateen eraginengatik ez bada, erantsitako kontu orokorrek irudi zehatza erakusten dute alderdi esanguratsu guztietan, ondareari, gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta Udalaren 2014ko aben-

duaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldiko emaitza ekonomiko eta aurrekontukoiei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz.

IV.2. LEGEZKOTASUNAREN BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Gure iritziz, Udalaren 2014ko ekitaldiari buruzko finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa bat datoz, alderdi adierazgarri guztietan, aplikatzekoak diren arauekin.

IV.3. UDALAREN 2014ko ABENDUAREN 31ko EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA

Udalaren 2014ko ekitaldiko hasierako aurrekontu bateratua 2013ko abenduaren 27an onetsi zen hasiera batez, eta 2014ko otsailaren 10ean onetsi zen behin betiko. Aurrekontu horrek 15,3 milioi euroko gastu eta diru-sarrerak dauzka; zenbateko horiek ehuneko 8 handitu dira aurrekontu-aldaketen bitartez. Horrenbestez, behin betiko aurreikuspenak 16,6 milioi eurokoak dira.

Aldaketak honako hauei dagozkie; kreditu bereziak, kreditu-transferentziak, kreditu-gehigarriak, kreditu-gehikuntzak eta kreditu-sorkuntzak, eta nagusiki inbertsio errealetako gastuen kontusail batzuk handitzeko egin dira.

Aitortutako betebeharrak 15,1 milioi eurokoak izan dira eta ehuneko 90,99ko betetze-maila izan dute. Betetze-mailarik handiena izan duten kapituluak finantza-pasiboarena (ehuneko 100), langile-gastuena (ehuneko 93,99), transferentzia arruntena (ehuneko 93,43) eta ondasun arrunten eta zerbitzuena (ehuneko 91,23) izan dira; aitzitik, inbertsio errealetan, kapital-transferentzietan eta finantza-gastuetan betetzea batez bestekoa baino apalagoa izan da (ehuneko 79,72; 34,29 eta 21,09, hurrenez hurren).

Aitortutako eskubideek 18,4 milioi euro hartzen dute guztira, eta betetze-maila ehuneko 111,01,2koa da. Zuzeneko zergak, tasak eta transferentzia arruntak ia erabat exekutatu dira; zeharkako zergak eta ondare bidezko diru-sarrerak batez bestekoa baino exekuzio handiagoa dute (ehuneko 294,73 eta 296,18, hurrenez hurren).

Gastuen izaerari begiratu gero, gastu arruntek eta inbertsioek gastu guztien ehuneko 87 eta ehuneko 11 osatzen dute, hurrenez hurren. Diru-sarrerei dagokienez, diru-sarrera arruntak diru-sarrera guztien ehuneko 100 dira; diru-sarrera horien ehuneko 37 jasotako transferentzietatik datoz.

Taula honetan adierazten da zertarako erabili eta nola finantzatu diren gastuko 100 eurotik bakoitza:

Gastuaren izaera	Zenbatekoa	Finantzabidea	Zenbatekoa
Langileak	47	Tributu bidezko diru-sarrerak	40
Bestelako gastu arruntak	40	Transferentziak	37
Inbertsioak	11	Ondarezko diru-sarrerak /Inbertsio errealean besterentzea	23
Finantza-zama	2		
Guztira	100		100

Hona Udalaren 2014ko ekitaldirako aurrekontu bateratuaren betetzeari eta betetze horren 2013ko ekitaldikoarekiko alderaketari buruzko adierazleak (eurotan):

Adierazleak	2014	2013	Aldea (%)
Aitortutako betebeharrak, guztira	15.123.908	13.927.005	9
Aitortutako eskubideak, guztira	18.452.397	14.098.219	31
Gastuen betetzea (%)	90,99	89,22	
Diru-sarreraren betetzea (%)	111,01	89,44	
Ordainketak (%)	90,06	89,68	
Kobratutakoa (%)	97,16	96,47	
Gastu arruntak (1. kapitulutik 4.era)	13.128.492	13.193.422	0
Funtzionamendu-gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)	13.118.982	13.160.051	0
Inbertsioen gastuak (6. eta 7. kapituluak)	1.712.666	450.833	280
Finantza-eragiketengatiko gastuak (8. eta 9. kapituluak)	282.750	282.750	0
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	18.441.622	14.105.843	31
Tributu bidezko diru-sarrerak (1. kapitulutik 3.era)	7.492.944	7.140.195	5
Kapital bidezko diru-sarrerak (6. eta 7. kapituluak)	10.775	-7.623	241
Diru-laguntzen menpekotasunak (%)	36,83	48,71	
Zerga bidezko diru-sarrerak / gastu arruntak (%)	57,07	54,12	
Aurrekontuko saldo ez-finantzarioa	3.611.239	453.965	695
Aurrekontu-emaizta doitua	3.460.036	171.215	1921
Aurrezki gordina	5.322.641	945.791	463
Finantza-zama (3. kapitulutik 9. kapitulura)	292.261	316.120	-8
Aurrezki garbia	5.030.380	629.671	699
Zorpetze maila (%)	1,58	2,24	
Zorpetze muga (%)	28,86	6,7	
Zorpetze-ahalmena (%)	27,28	4,46	
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	4.615.863	1.398.591	230
Udalaren zor bizia	1.642.000	2.043.693	-20
Zor bizia biztanleko	80	97	-17
Diru-sarrera arrunten gaineko zor bizia (%)	% 8,90	% 14,49	
Aurrezki gordinaren gaineko zor bizia	0,31	2,16	

2014an, Udalak aurreko ekitaldian baino ehuneko 9 gehiago gastatu du; gastu handiago horren arrazoia da, funtsean, inbertsio errealetan egindako gastuak ehuneko 280 egin duela gora. Bestalde, diru-sarrerak aurreko ekitaldikoak baino ehuneko 31 handiagoak izan dira. Handitze hori diru-sarreraren kapitulu guztietan gertatu dira, salbu eta transferentzia arrunten kasuan.

Izaera arrunteko gastuek –ehuneko 6,1– aurreko urtekoen antzeko mailari eusten diote. Aitzitik, diru-sarrera arruntek ehuneko 31 egin dute gora, funtsean ondare bidezko diru-sarreraren kapituluak gora egin duelako (2013ko ekitaldian 66.323 eurokoa izatetik 2014ko ekitaldian 4.148.616 eurokoa izatera pasa da). Igoera horren arrazoia da demanio-emaikida administratiboa eman dela 40 urtez merkataritza-erabilerako lurzati batek erabilera pribatiboa izan dezan. VI.6 atalean garatzen da hori. Aurrekontuko diru-sarrerak.

Aurrekontu-saldo ez-finantzarioa (diru-sarrerak ken gastu ez-finantzarioak) 3,6 milioi positiboa da, eta ehuneko 695 egin du gora 2013koarekin alderatuta.

Aurrekontu-emaizta doitua 3,5 milioi eurokoa da; aurreko urteko emaitza, berriz, 0,2 milioi eurokoa izan zen. Horretarako arrazoi nagusia ondare bidezko diru-sarrerak dira, zeinetan 1,4 milioi euroko aurreikuspenak zeuden baina azkenean 4,2 milioi euroko eskubide aitortuak egon diren, aurrekontuan jasotakoa baino 2,8 milioi gehiago; horrek % 296ko betetze-maila egiten du.

Bai aurrezki gordinak, bai aurrezki garbiak ehuneko 463 eta ehuneko 699 egin dute gora, hurrenez hurren.

Udalaren zorpetze-maila ehuneko 1,58koa da, eta ehuneko 28,86ko muga du; horregatik, hain zuzen, Udalak badu zorpetze berri baterako gaitasun ekonomikorik.

Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina edo hurrengo ekitaldian gastuak finantzatzeko ahalmena neurtzen duen adierazlea positiboa izan zen: 4,6 milioi euro (2013an izan zena baino ehuneko 230 gehiago).

Epe luzeko zor bizia 1,6 milioira iristen da, eta 2013an 2,0 milioi eurokoa zen; hau da, ehuneko 20 jaitsi da; zor hori –biztanle bakoitzeko 80 euroko zorra da– entitatearen diru-sarrera arrunten ehuneko 8,90 da, gaur egun zorpetze berriak egiteko ehuneko 110eko legezko mugaren azpitik, alegia. 2014an lortutako aurrezki gordinaz baliatuz, 0,31 urte beharko lirateke Udalak gaur egun duen zorrari aurre egiteko.

Zorpetze-maila gutxitu egin da 2013ko ekitaldian zenarekin alderatuta, zor biziaren bolumena arrazoizko mailan dago; izan ere, oraindik ere badu zorpetzeko tarte edo ahalmen ekonomikoa.

Barañaingo Udaleko aurrekontu bateratuaren bilakaera eta likidazioa

Diru-sarrerak (aitortutako eskubide garbiak)

Deskribapena	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
1. Zuzeneko zergak	3.249.519	3.301.911	3.225.247	3.346.224	3.539.260	3.492.873	3.577.126	3.663.974	3.843.671
2. Zeharkako zergak	232.696	305.968	76.303	142.136	198.578	130.577	141.971	80.203	235.787
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	3.082.334	3.387.153	3.373.876	3.429.389	3.453.341	3.481.445	3.513.450	3.396.016	3.413.486
4. Transferentzia arruntak	7.633.787	7.151.757	7.725.094	7.759.409	7.538.824	7.216.466	7.267.687	6.874.959	6.785.403
5. Ondare diru-sarrerak eta herri-lurren aprob.	82.140	60.326	51.689	29.627	36.899	33.032	56.450	90.688	4.163.275
6. Inbertsio errealen beste-erentzeak	1.529.629	24.897	498.547	327.888	0	0	62.900	0	0
7. Kapital-transferentziak	469.234	1.132.511	852.393	3.961.185	3.311.890	8.115	155.342	-7.623	10.775
9. Finantza-pasiboak	0	0	1.533.000	0	0	0	0	0	0
Guztira	16.279.339	15.364.524	17.336.149	18.995.858	18.078.792	14.372.507	14.774.926	14.098.217	18.452.397

Gastuak (aitortutako betebeharrak)

Deskribapena	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
1. Langile-gastuak	6.909.283	7.283.305	7.756.301	8.224.268	7.784.803	7.451.115	6.950.946	7.105.216	7.128.293
2. Ondasun arruntak eta zerbitzuak	4.735.213	5.092.368	5.372.384	5.174.092	5.197.843	5.293.515	5.307.327	5.172.049	5.045.132
3. Finantza-gastuak	62.118	72.209	129.135	92.757	32.883	31.190	27.914	33.370	9.511
4. Transferentzia arruntak	988.986	1.163.303	1.178.424	937.105	829.681	774.619	847.694	882.786	945.557
6. Inbertsio errealak	1.556.566	2.153.746	2.472.686	4.501.482	2.880.496	227.700	287.818	438.990	1.700.666
7. Kapital-transferentziak	308.000	179.613	125.420	18.063	0	0	0	11.842	12.000
8. Finantza-aktiboak	0	0	0	0	0	0	0	0	0
9. Finantza-pasiboak	180.550	180.550	180.550	282.750	282.750	282.750	282.750	282.750	282.750
Guztira	14.740.715	16.125.095	17.214.900	19.230.518	17.008.456	14.060.889	13.704.449	13.927.003	15.123.909

Taulako datuetatik ondorioztatzen denez, 2009ra arte gastuek eta diru-sarrerak gora egin zuten, eta gero 2011ra arte behera egin dute; ute horretatik aurrera, berriz, eutsi egin zaie. 2014an igoera bat antzeman da, batez ere diru-sarreretan, merkataritza-zentro bat ezartzearekin lotutako eragiketa bereziaren ondorioz.

2009tik gastu arruntaren jaitsiera bat gertatu da, bai eta inbertsioen gutxitze bat ere; azken horiek 2014an berriz hazi dira, lortutako diru-sarrera berezien ondorioz.

Zor bizia 2008an 3,3 milioikoa izatetik 2014an 1,6 milioikoa izatera pasa da.

Udalaren jardueraren bilakaera honako adierazle hauen alderaketatik ondorioztatzen da (ikus oroitidazkia) 2011tik 2014ra:

	2011	2014
Zorpetze-ahalmena	% 3,63	% 27,28
Inbertsio indizea	% 1,62	% 11,32
Gastu arrunta biztanleko	629 €	642 €
Tributu diru-sarrerak/biztanleko	330 €	366 €
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	628.748	4.615.863

Ikus daitekeen bezala, lurzatiaren emakidarekin lotutako eragiketak nabarmen aldatu du Udalaren egoera ekonomikoa.

IV.4 AURREKONTU-EGONKORTASUNEN ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK BETETZEA

Aurrekontu-egonkortasunaren printzipioa noraino bete den kalkulatu da, Nafarroako Gobernuak 2014ko maiatzean eta urrian horretarako eman dituen gidez baliatuta. Hurrengo taulan ematen dugu horren emaitza:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Aurrekontuko saldo ez finantzarioa	3.611.239
Zergengatiko doikuntzak	-114.751
Finantzatzeko ahalmena	3.496.488

Ikusi da Barañaingo Udalak bete egiten dituela bai finantza-egonkortasunaren baldintzak, bai gastuaren araua ere, zeren eta egoztekoa den gastua txikiagoa baita ezarritako muga baino (2013an, ehuneko 1,5 egin zuen gora).

Halaber, Udalak finantza-iraunkortasunaren printzipioa betetzen du, zeren eta zorra ezarritako mugatik –diru-sarrera arrunten ehuneko 110– beherakoa baita.

Oro har, Udalak betetzen ditu legedia indardunean hornitzaileei ordainketak egiteko ezarritako epeak.

Fiskalizazioari buruzko iritzian eragin nahi gabe ere, Kontuen Ganbera honek nabarmendu nahi ditu krisi ekonomikoko egungo egoeraren arriskuen ondorioz dagoen egoera, ziurgabetasun horrek Udalaren kontu publikoen gainean dituen eragin finantzarioak eta aurrekontu-egonkortasunari buruzko arauetatik heldu diren aurrekontu-betebeharrak.

Testuinguru honetan, aurrekontuen plangintzan eta betetzean zorrotz jokatzek eta funts publikoen erabileran gardentasuna izateak herritarren funtsezko beharrekin bat datorren kudeaketa publiko baten oinarritzko baldintza izan behar dute.

IV.5. AURREKO TXOSTENETAN KONTUEN GANBERAK EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZE-MAILA.

Ganbera honek 2013ko ekitaldiari buruz egin zuen txostenari erreparatuta –2014ko urrian argitaratu zen–, ikusten da ahalegina egin dela gastuei eusteko, salbu eta inbertsio errealetan egindakoei. Halere, honako gomendio garrantzitsu hauek oraindik ere ezartzeko daude:

- *Betebeharrak edo eskubideak eragiten dituen erakunde autonomoen egintza orok egon behar du barne-kontrol ekonomikoaren eta legezkoaren mende.*
- *Udal-inbentarioa onartzea, eta dokumentazioaren artxiboa kontrolatzeko eta inbentarioko alden eta baje jarraipena egiteko sistema bat ezartzea, hura etengabe gaurkotzeko eta kontabilitateko ibilgetuarekin duen lotura bermatu eta bideratzeko aukera emanen duena.*
- *Fundazioaren urteko kontuak Udalaren kontu orokorrari eranstea, eranskin gisa gutxienez.*
- *Plantillan dauden lanpostuen eta egiaz betetzen diren lanpostuen arteko erlazioa aztertzea, plantilla organikoa egiazko premietara egokitzen den egiaztatzeko.*
- *Balorazio-ponentzia Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko azaroaren 1eko 12/2006 Foru Legearen aurreikuspenen arabera berrikustea.*
- *Hirigintza-planeamendua Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen espezifikazioetara egokitzea.*

V. UDALAREN 2014ko KONTU OROKORRAREN LABURPENA

Ondoren 2014ko ekitaldiko egoera-orri bateratu garrantzitsuenak jasotzen dira (Udala eta era-kunde autonomoak)

V.1. 2014ko EKITALDIKO AURREKONTU BATERATUAREN LIKIDAZIOAREN EGOERA-ORRIA

Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

(eurotan)

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Kobrantzak	Kobratzeko dagoena	Betetakoa (%)	Aitorturikoaren gain. %
1. Zuzeneko zergak	3.715.000	0,00	3.715.000	3.843.671	3.659.217	184.454	103	21
2. Zeharkako zergak	80.000	0,00	80.000	235.787	220.849	14.938	295	1
3. Tasak eta bestelako dirusarrerak.	3.541.700	0,00	3.541.700	3.413.486	3.273.970	139.516	96	18
4. Transferentzia arruntak	6.825.750	5.000,00	6.830.750	6.785.403	6.601.877	183.526	99	37
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	453.665	952.000,00	1.405.665	4.163.275	4.162.057	1.218	296	23
6. Inbertsio errealak besterentzea	661.000	0,00	661.000	0,00	0,00	0,00	0	0
7. Kapital transf.	0	0,00	0	10.775	10.775	0,00	0	0
8. Finantza-aktiboak	0,00	388.000,00	388.000,00	0,00	0,00	0,00	0	0
9. Finantza-pasiboen aldaketa	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0	0
Guztira	15.277.115	1.345.000,00	16.622.115	18.452.397	17.928.745	523.652	111	100

Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako betebeharrak	Ordainketak	Ordaintzeko dagoena	Betetakoa (%)	Aitorturikoaren gain. %
1. Langile-gastuak	7.578.880	5.000	7.583.880	7.128.293	6.912.546	215.746	94	47
2. Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	5.537.485	-7.600	5.529.885	5.045.132	4.435.969	609.163	91	33
3. Gastu finantzarioak	45.100	0,00	45.100	9.511	9.511	0	21	0
4. Transferentzia arruntak	979.000	33.100	1.012.100	945.557	758.535	187.022	93	6
5. Inbertsio errealak	818.900,00	1.314.500	2.133.400	1.700.666	1.220.000	480.666	80	11
6. Kapital transf.	35.000,00	0	35.000	12.000	600	11.400	34	0
7. Finantza-aktiboak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0	0
8. Finantza-pasiboak	282.750	0,00	282.750	282.750	282.750	0,00	100	2
Guztira	15.277.115	1.345.000	16.622.115	15.123.908	13.619.911	1.503.998	91	100

V.2. 2014 EKITALDIKO AURREKONTU BATERATUAREN EMAITZA

(eurotan)

Kontzeptua	2014ko ekitaldia	2013ko ekitaldia
+ Aitortutako eskubideak	18.452.397	14.098.219
- Aitortutako betebeharrak	-15.123.908	-13.927.004
= Aurrekontu-emaiza	3.328.489	171.215
Doikuntzak		
- Finantzaketaren desbideratze positiboak		
+ Finantzaketaren desbideratze negatiboak		
+ Diruzaintza-gerakin likidoarekin finantzatutako gastuak	131.547	
= Aurrekontu-emaiza doitua	3.460.036	171.215

V.3. DIRUZAINZTA-GERAKINAREN EGOERA-ORRIA 2014KO ABENDUAREN 31N

(eurotan)

Kontzeptua	2014ko ekitaldia	2013ko ekitaldia
+ Kobratzeko dauden eskubideak	639.433	629.248
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	523.652	497.234
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	802.201	731.521
+ Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak:	44.784	44.028
+ Ordainketen itzulketak		
- Bilketa zaileko eskubideak	-731.137	-643.411
- Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	-66,53	-124
- Ordaintzeko dauden betebeharrak	1.937.496	3.309.650
+ Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	1.503.998	1.436.123
+ Gastuen aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	17.718	16.447
+ Diru-sarreraren itzulketak		
+ Aurrekontuz kanpoko gastuak	415.840	1.857.140
- Aplikatzeko dauden gastuak	-60	-60
+ Diruzaintzako funts likidoak	6.216.040	4.381.108
+ Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboak		
Diruzaintza-gerakina, guztira	4.917.978	1.700.706
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta	302.115	302.115
Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina		
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	4.615.863	1.398.591

V.4. 2014ko ABENDUAREN 31ko EGOERA-BALANTZE BATERATUA

Aktiboa

(eurotan)

Deskribapena	2014	2013
A Ibilgetua	35.939.678	34.243.971
1 Ibilgetu materiala	25.250.569	24.570.090
2 Ibilgetu ez-materiala	408.792	353.631
3 Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	10.280.317	9.320.250
4 Herri-ondasunak		-
5 Finantza-ibilgetua		-
C Zirkulatzaila	7.586.737	5.661.768
7 Izakinak	-	-
8 Zordunak	1.370.637	1.272.782
9 Finantza-kontuak	6.216.100	4.381.169
11 Aplikatzeko dagoen emaitza (ekitaldiko galera)		7.817
Aktiboa, guztira	43.526.416	39.905.739

Pasiboa

(eurotan)

Deskribapena	2014	2013
A Funts berekiak	39.941.565	34.665.927
1 Ondarea eta erreserbak	19.799.495	18.964.090
2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	5.272.680	843.222
3 Kapitaleko diru-laguntzak	14.869.390	14.858.615
C Epe luzeko hartzekodunak	1.647.228	1.929.978
4 Jesapenak, maileguak eta fidantzak, jasotako gordailua	1.647.228	1.929.978
D Epe laburreko hartzekodunak	1.937.622	3.309.834
5 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	1.937.556	3.309.710
6 Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	67	124
Pasiboa, guztira	43.526.416	39.905.739

V.5. GALEREN ETA IRABAZIEN KONTU BATERATUA 2014ko ABENDUAREN 31n

Ekitaldiko emaitza arruntak

Zor			Hartzeko			(eurotan)		
Deskribapena	2014	2013	Deskribapena	2014	2013	Deskribapena	2014	2013
3	Hasierako izakinak	-	-	3	Amaiarako erosketak	-	-	-
39	Izakinen balio-galtzeen hornidura	-	-	39	Izakinen balio-galtzeen hornidura	-	-	-
60	Erosketak	-	-	70	Salmentak	2726121,1	2715470	-
61	Langile-gastuak	7.130.085	7.102.263	71	Ondasunaren eta enpresaren errenta	4.719.037	631.796	-
62	Finantza-gastuak	9.511	33.370	72	Produkzioari eta inportazioari lotutako tributuak	2.713.603	2.504.361	-
63	Tributuak	-	-	73	Errentaren gaineko zerga arruntak	1.014.473	1.012.757	-
64	Lanak, hornikuntzak eta kanpoko zerbitzuak	5.140.716	5.280.583			-	-	-
65	Gizarte prestazioak	7.582	9.291	75	Ustiapenerako diru-laguntzak	-	-	-
66	Ustiapenerako diru-laguntzak	-	-	76	Transferentzia arruntak	6.785.403	6.874.959	-
67	Transferentzia arruntak	845.557	771.253	77	Kapitalaren gaineko zergak	351.382	227.060	-
68	Kapital-transferentziak	12.000	-	78	Bestelako diru-sarrerak	131.603	139.439	-
69	Amortizazio eta zuzkiduretarako hornidura	-	-	79	Beren helbururako aplikatutako hornidurak	-	-	-
	Ustiapen-mozkina	5.296.171	909.083		Ustiatzeagatiko galerak	-	-	-
	Guztira	18.441.622	14.105.843		Guztira	18.441.622	14.105.843	

Ekitaldiko emaitzak

Deskribapena	2014	2013	Deskribapena	2014	2013		
80	Ekitaldiko emaitza arruntak (Saldo zorduna)	-	-	80	Ekitaldiko emaitza arruntak (Saldo hartzekoduna)	5.296.171	909.083
82	Ohiz kanpoko emaitzak (Saldo zorduna)	-	3.795	82	Ohiz kanpoko emaitzak (Saldo hartzekoduna)	237	-
83	Balore-zorroaren emaitzak (saldo zorduna)	-	-	83	Balore-zorroaren emaitzak (saldo hartzekoduna)	-	-
84	Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (saldo zorduna)	28.469	62.469	84	Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (saldo hartze-)	4.741	403
89	Etekin garbia, guztira (Saldo hartzekoduna)	5.272.680	843.222	89	Galera garbia, guztira (Saldo zorduna)	-	-
	Guztira	5.301.149	909.486		Guztira	5.301.149	909.486

VI. UDALARI ETA HAREN MENPEKO ENTEEI BURUZKO IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Ondoren, kudeaketaren arlo esanguratsuenen arabera sailkaturik, Ganberaren iritziz Udalak eta haren mendeko erakundeek beren antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne kontrola hobetzeko hartu beharko lituzketen neurriei buruzko ondorio, iruzkin eta aholku nagusiak emanen ditugu.

VI.1. ALDERDI OROKORRAK

- Udalaren ondasunen inbentarioa 1992koa da. Inbentario hori ez zen formalki onetsi, eta harezkerok ez da eguneratu.
- Udalak 1,4 milioi euroko muga zuen diruzaintzako epe laburrerako kreditu bat hitzartu zuen azkeneko ekitaldi hauetan, unean uneko ordaindu beharrei erantzuteko. 2014ko otsailaren 20an kitatu da.
- Ez da aurkitu nabarmentzeko moduko zenbatekoa duen 2014ko ekitaldiko fakturarik, 2015eko aurrekontuari egotzi zaionik.
- Erakunde autonomoen kudeaketa administratiboa eta kontabilitateari dagokiona modu deszentralizatuan egiten da, barne-kontrolerako udal organoek egintzen gaineko kontu-hartzaitza egin gabe. Horien jarduera “a posteriori” egiten da, eta aurrekontuaren eta haren kitapenaren espedientearen azterketan jartzen du batez ere arreta.
- Epe luzerako zorraren amortizazio-egutegia, 2014ko abenduaren 31n zegoen bezala, ondoko taula honetan agertzen dena da:

(eurotan)

Ekitaldia
2015
2016
2017
2018
2019-2023
Guztira

• Udala, 2014ko egintzen ondorioz nahiz aurreko ekitaldietatik heldu direnen ondorioz, zenbait prozedura judizialeetan dago sarturik. Udalaren aholkularitza juridikoaren txostenetik, honako hauek atera ditugu, zenbateko ekonomiko aipagarria baitute:

a) 2013ko ekitaldiko txostenean ere jaso zen Udaleko langile baten kaleratzea baliogabetzeko prozedura, Iruñeko Lan-arloko 1. Epaitegian. 2014ko apirilaren 1ean, Nafarroako Auzitegi Nagusiak epaia eman zuen. Udalak haren aurkako kasazio errekurtsua aurkeztua du. Errekurtsua ez da onartu; hori dela eta, 2015ean, 39.829 euro ordaindu behar izan dira.

b) Barañaingo Udalaren zerbitzuko ofizial administraria izateko bi lanpostu, euskararen ezagutzarekin, oposizio bidez betetzeko deialdiari buruzko errekurtsua, Udalaren aholkularitza juridikoaren arabera. Bista 2016ko martxorako ezarri da. Udalaren aurkako epairik izatekotan, 50.000 euroko kostua izan dezake.

Hona gomendatzen duguna:

• *Udal-inbentarioa onartzea, eta dokumentazioaren artxiboa kontrolatzeko eta inbentarioko alten eta bajen jarraipena egiteko sistema bat ezartzea, hura etengabe gaurkotzeko eta kontabilitateko ibilgetuarekin duen lotura bermatu eta bideratzeko aukera emanen duena.*

- *Aztertzea ea kiroletako udal programaren kudeaketan mendetasun bikoitza edukitzea onuragarria den antolamendurako, koordinaziorako eta kontrolerako, kirolera bideratzen diren baliabide publikoak optimizatze aldera.*

VI.2. LANGILEAK

Langileen gastu bateratua 7,1 milioi eurokoa da; hau da, 2014an sortutako gastu guztien ehuneko 47,13 eta gastu arrunten ehuneko 54,30.

2013ko ekitaldiari dagokionez, kapitulu hau ehuneko 0,32 handitu da, honako xehetasunen arabera:

(eurotan)			
1. kapitulua	2014	2013	Aldea (%),
Goi-karguak	137.104	149.097	-8,04
Kabineteetako aldi baterako langileak	139.479	142.820	-2,34
Funtzionarioak	1.225.442	1.205.328	1,67
Lan-kontratudun finkoak	2.349.053	2.372.143	-0,97
Aldi baterako lan-kontratudunak	828.897	848.643	-2,33
Gizarte-zamak	2.448.319	2.387.185	2,56
1. kapitulua, guztira	7.128.293	7.105.216	0,32

Barañaingo Udalaren Osoko Bilkurak 2013ko abenduaren 27an eman zion hasierako onespina plantilla organikoari; behin betiko onespina, berriz, 2014ko otsailaren 28an eman zion. Plantilla organikoak bai toki entitatearen beraren plantilla, bai haren erakunde autonomoena – Musika Eskola eta Lagunak Udal Zerbitzua– hartzen ditu.

Udalaren plantilla berekiak 116 lanpostu dauzka. Guztira, 33 lanpostu hutsik daude, hurrengo tauletan ikus daitekeen bezala:

	Lanpostuak	Aktiboa	Lanpostu hutsak
Izendapen askea	4	4	-
Funtzionarioak	56	26	30
Lan-kontratupekoak	56	53	3
Guztira	116	83	33

Zehazki Udaleko langileak direnak arlo hauetara atxikirik daude:

Arloak	Kopurua
Zerbitzu orokorrak	18
Polizia	26
Gai ekonomikoak eta giza baliabideak	9
Kultura eta euskara	7
Kirola	1
Gizarte ongizatea eta berdintasuna	7
Hirigintza eta ingurumena	22
Hezkuntza	26
Guztira	116

2014ko abenduaren 31n, Udalean eta haren erakunde autonomoetan 154 pertsonak egiten zuten lan, 2013an baino 2 gehiago. Hona xehetasunak:

Langileak	Udala	S.M. Lagunak	Luis Morondo Mu- sika Eskola	Guztira
Udaleko batzarkideak	2			2
Izendapen askea	4	1		5
Funtzionarioak	27			27
Lan-kontratudun finkoak	48	8	15	71
Aldi baterako lan-kontratudunak	25	6	4	35
Administrazio-kontratudunak	7			7
Babestutako enplegu soziala	7			7
Guztira	120	15	19	154

Langile-gastuen lagin bat aztertu ondoren, gastu horiek, oro har, ondo kontabilizatuta daudela ondorioztatzen da, eta ordainsariak betetako lanpostuetarako eta lan-harremanaren kategoriarako erabakitakoak direla eta egindako atxikipeak zuzenak direla.

Langileen kudeaketa kanpoko laguntzarekin egiten da erakunde autonomoen kasuan; ez, ordea, Udalaren kasuan. 2014ko ekitaldian soldata-igoerarik ez dela izan ikusi da orobat.

Hona gomendatzen duguna:

- *Plantillan dauden lanpostuen eta egiaz betetzen diren lanpostuen arteko erlazioa aztertzea, plantilla organikoa egiazko premietara egokitzen den egiaztatzeko.*
- *Erakunde autonomoetan, mekanismo batzuk ezartzea haien gastua hobeki kontrolatu eta jarraitzeko.*

VI.3. ONDASUN ARRUNTETAKO ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK

Ondasun arruntetan eta zerbitzuetan egindako gastuek 5,0 milioi euro egin dute 2014an, guztira; kopuru hori ekitaldian aitortutako gastuen ehuneko 33,36 eta eragiketa arrunten gastuen ehuneko 38,43 da. 2013. urtearen aldean, ehuneko 2,45 murriztu dira.

Kapitulu honetako gastuen betetze-maila, eta 2013ko ekitaldian izan zenarekiko alderaketa ondoko taula honetan adierazten da:

	(eurotan)		
2. kapitulua	2014	2013	Aldea (%)
Errentamenduak	31.021	25.816	20
Konponketak, mantentze-lanak eta kontserbazioa	1.156.678	1.127.890	3
Inbentariatu ezin den materiala	59.674	61.823	-3
Hornidurak	1.123.509	1.204.574	-7
Komunikazioak	50.359	49.605	2
Garraioak eta pleitak	42.110	92.033	-54
Aseguru-primak	78.670	76.463	3
Zenbait gastu	386.469	411.283	-6
Beste enpresa batzuek egindako lanak	2.112.226	2.119.564	0
Zerbitzua dela-eta emandako kalte-ordainak	4.415	2.999	47
Guztira	5.045.132	5.172.049	-2,45

Kapitulu honi egotzitako honako kontratazio-espeditente hau aztertu dugu, 2014an lizitatua (zenbatekoak eurotan, BEZa barne):

Deskribapena	Kontratu mota	Esleipen-prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Eskaintzak	Esleipenaren zenbatekoa
Etkez etxeko laguntza zerbitzua *	Laguntza	Irekia	87.465	1	87.465

* Urte anitzeko kontratu bat da, urtarrilaren 2an sinatua. Kopuruak urteko zenbatekoei dagokie.

Azterketa horren eta kapitulu honetan erregistratutako gastuen lagin bati buruz egindako azterketaren ondorioz, gastuak justifikatuta daudela, behar bezala kontabilizatu direla eta egokiro izapidetu direla egiaztatu da, eta ez dela aplikatzekoa den araudiaren urratze larririk ikusi; halere, ikusi dugu enpresa batzuen aldeko hornidura- eta zerbitzu-kontratu batzuek gehieneko epea gainditzen dutela, eta, horrenbeste, berriz lizitatu behar zirela.

Gomendatzen dugu esleipen-prozedura berriak hastea kontratazio araudian ezarritako iraupen-muga gainditzen denean.

VI.4. TRANSFERENTZIEN ONDORIOZKO GASTUAK

Transferentzia arruntengatiko gastuak (erakunde autonomoenak kenduta, 4. orrialdean azaltzen baitira) 945.000 eurokoak izan direla. Ekitaldiko gastu guztien ehuneko 6,25 egiten dute, eta eragiketa arruntaren ehuneko 7,20.

Honakoa da transferentzia arruntengatiko 2013ko eta 2014ko gastuak alderatzeko taula, artikuluz artikulukoa:

(eurotan)			
4. kapitulua	2014	2013	Aldea (%)
A) Entitatearen enpresak.	70.000	65.000	8
Foru Komunitateari	57.783	54.690	6
Toki entitateei	370.311	338.440	9
Kirol eskola eta elkarteei	131.385	143.580	-8
Enpresa pribatuei	2.181	700	212
Familiei eta irabazi asmorik gabeko erakun-	313.897	280.378	12
Transferentzia arruntak	945.557	882.788	7,11

2013koen aldean, gastu hauek ehuneko 7,11 hazi dira: kontusail guztiek egin dute gora, salbu eta kirol elkarteentzako diru-laguntzenek. Gehien hazi diren kontusailak eskualdeko garraioarena -32.000 euro-, hirugarren mundurako laguntzena -20.000- eta emergentzia sozialeko laguntzenak -8.000 euro- izan dira.

Toki entitateentzako diru-laguntzen barruan, 370.000 euro egozten zaizkio eskualdeko garraioaren finantzaketari; 2013an, berriz, 338.000 euro izan ziren.

Honakoak dira 2014an emandako diru-laguntza garrantzitsuenak:

(eurotan)	
Kontzeptua	Zenbatekoa
Kirol elkarteak	100.000
Hitzarmena Auditorioa Fundazioarekin	70.000
Ibai Parkea	57.783
Kultur arloko lankidetzak-hitzarmenak	39.253
Errege-kabalgatarako eta Olentzerorako diru-laguntza	38.394
Infolocal proiekturako ekarpena	34.258
Udalaren kirol eskoletarako diru-laguntza	31.385
Guztira	371.073

Kirolaren kudeaketa Udalak berak eta Lagunak Udal Zerbitzuak partekatzen dute. Kirolaren kudeaketa bikoitza izateak berarekin dakar beti ez egotea argi definiturik kirol eskolen edo jardueren finantzaketa, ez eta zein gastu finantzatu beharko liratekeen funts publikoekin; eta oroitazkian aipatzen den bezala, kirol sekzioen finantzaketa oso askotarikoa da.

Egindako berrikuspenetik ondorioztatzen da Udalak indarrean dagoen araudia behar bezala bete duela.

Hona gomendatzen duguna:

- *Kirol jardueren finantzaketarako plan bat egitea, non helburuak, eraginak, irizpideak, aurreikusketak diren kostuak eta baliabideen aurreikuspena jasoko diren; horrek aukera emanen du kirolaren kudeaketan kontrol eta koordinazio handiagoak izateko.*

- *Betebeharrak edo eskubideak eragiten dituen erakunde autonomoen egintza orok egon behar du barne-kontrol ekonomikoaren eta legezkoaren mende.*

VI.5. INBERTSIOAK

2014ko ekitaldirako behin betiko aurrekontuan aurreikusitako inbertsioak 2,1 milioi eurokoak dira. Kapitulu horretatik ehuneko 80 bete da, eta 1,7 milioiko zenbatekora iritsi da; hau da, ekitaldiko aitortutako betebeharrak guztien ehuneko 11,24. Hau da alde handiena izan duen kapitulua, 2013an 438.000 eurokoa izatetik 2014an 1.701.000 eurokoa izatera pasa baita. Igoera 1.262.000 eurokoa izan da.

Honakoa izan da azken bost ekitaldietan VI. kapituluan aitortutako betebeharrak garbieraren bilakera:

Urtea	Aitortutako betebeharrak
2010	2,9 milioi euro
2011	0,23 milioi euro
2012	0,29 milioi euro
2013	0,44 milioi euro
2014	1,70 milioi euro

Horrez gainera, kapitulu honi atxiki zaizkion kontratazio-espeditente hauek aztertu ditugu (zenbatekoak eurotan, BEZa barne):

Deskribapena	Kontratu mota	Esleipen-prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Eskaintzak	Esleipenaren zenbatekoa	2014an betetakoa
Belarra mozteko trakto-reak erostea	Hornidura	Publizitaterik gabe negoziatua, eskaintza onenarentzat	32.000	2	20.740	20.740
Zenbait kale zolatzea (MBC)	Obra	Publizitaterik gabe negoziatua, eskaintza onenarentzat	555.701	3	533.473	521.956
Futbol zelairarako belar sintetikoa	Obra	Publizitaterik gabe negoziatua, eskaintza onenarentzat	234.727	2	164.047	168.591
Lursail bat urbanizatzea azokarako	Obra	Publizitaterik gabe negoziatua, eskaintza onenarentzat	77.584	3	70.524	76.886
Zizurko biribilgunea bikoiztea	Obra	Publizitaterik gabe negoziatua, eskaintza onenarentzat	133.446	3	110.303	121.299
Atletismo pistak	Obra	Publizitaterik gabe negoziatua, eskaintza onenarentzat	272.835	4	190.985	228.918
Hainbat urbanizazio-lan	Obra	Publizitaterik gabe negoziatua, eskaintza onenarentzat	109.900	3	76.941	84.603

Aurreko berrikuspena eginda eta gastuen lagin bat aztertu ondoren, espedienteak izapidetzean dagokien kontratazio-araudia, oro har, bete egiten dela ikusi da. Halere, kontratu batzuen exekuzioan esleipeneko aurrekontua gainditu da, eta % 20tik beherakoa da; haien onespenerako araudian ezarritako izapideak bete dira.

VI.6. AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK

2014ko ekitaldian aitortutako eskubide bateratuak 18,4 milioikoak izan dira; ia guztiak eragiketa arruntengatiko diru-sarrerak izan dira.

Betetze-maila ehuneko 111,0koa izan da; kapitulu gehienek ehuneko 100etik gorako betetzeak daukate; altuenak, berriz, V. kapitulukoak dira (ondare bidezko diru-sarrerak), % 296ko betetze-mailarekin, eta II. kapitulukoak (zeharkako zergak), % 295eko betetze-mailarekin.

V. kapituluaren –ondare bidezko diru-sarrerak– betetzea nagusiki 4.090.000 euroren kobrantzari dagokio; kopuru hori merkataritza-erabilerarako lurzati bate emakida administratiboari dagokio. Emakida 2014ko apirilaren 23koa da, eta 40 urteko iraupenarekin.

Honako hauek dira emakida horren baldintzak:

Enpresak honako kopuru hauek ordaindu behar dizkio Udalari:

a) 4.000.000 euro, emakidaren gutxienerako urteko kanonaren hobekuntza moduan; ordainketa bakarrean egin zen, 2014ko maiatzaren 6an.

b) 90.000 euro, urteko kanonaren kontzeptuan –gorantz berrikus daiteke, KPIaren arabera–.

Halaber, enpresak 162.440 euro ordaindu ditu EIOZa eta izapidetze-tasak direla eta. Horrek II. kapituluaren betetzearen hazkundera azaltzen du.

Zergen bidezko diru-sarrerak, 7,5 milioi, eta transferentzia arruntak, 6,8 milioi, diru-sarreren ehuneko 77,38 egiten dute.

2013ko ekitaldiaren aldean, aitortutako eskubideek ehuneko 30,9 egin dute gora. Hona xehakitzea:

	(eurotan)		
Diru-sarreren kapituluak	DRN 2014	DRN 2013	Aldearen %, 2014/2013
1. Zuzeneko zergak	3.843.671	3.663.974	4,90
2. Zeharkako zergak	235.787	80.204	193,98
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	3.413.486	3.396.017	0,51
4. Transferentzia arruntak	6.785.403	6.874.959	-1,30
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	4.163.275	90.688	4490,77
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	18.441.622	14.105.842	30,74
6. Inbertsio errealeen besterentzea	-	-	
7. Kapital-transferentziak	10.775	-7.623	241,34
8. Finantza-aktiboak	-	-	
9. Finantza-pasiboak	-	-	
Kapitaleko diru-sarrerak eta finantza-eragiketak (6.etik 9.era)	10.775	-7.623	241,34
Guztira	18.452.397	14.098.219	30,88

Ondorengo taulan udal zerga bakoitzak aitortutako eskubideen bilakaera erakusten da:

(eurotan)

Diru-sarreraren kapituluak	DRN 2014	DRN 2013	Aldearen %, 2014/2013
Lurraren kontribuzioa	2.263.769	2.211.636	2,36
Ibilgailuak	1.014.473	1.012.758	0,17
Lurren balio-gehikuntza	351.382	227.060	54,75
JEZa	214.047	212.520	0,72
EIOZa	235.787	80.204	193,98
I. eta II. kapituluak, guztira	4.079.458	3.744.178	8,95

Zerga guztietan jokaera egokia izan duela ikusten da. Ekitaldian 142.000 euro aitortu dira EIOZean, merkataritza-zentro baterako lurzatiaren erabilera pribatiboaren emakida dela eta.

Udalak aplikatutako tasak Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legeak jasotzen duen sortako tarte ertain-altuan kokatzen dira, ondoko taula honetan ikus daitekeen bezala:

Kontzeptua	Ehunekoa 2/1995 Foru Legea	Udalak aplikatuak (%)
Lurraren gaineko kontribuzioa	0,10 eta 0,50 bitarte	0,280
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1etik 1,4ra	1,40
Lurren balioaren gaineko zerga		
Gaurkotze-koefizientea	2tik 3,3ra	3
Zerga-tasa	8tik 20ra	11,55
Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga (EIOZ)	2tik 5era	5

Tasa horiek aurreko urtean aplikatutakoen berdinak dira, salbu eta lurraren balioaren gaineko zergaren kasuan aplikatutakoa; azken hori, izan ere, aurreko ekitaldietan 0,273koa zen eta 2014ko ekitaldian 0,280ra igo da.

Balorazio-ponentzia azkeneko eguneratzea 2000. urtean onartu zen, 2001etik aurrera indarrean sartzeko; beraz, askogatik gainditu da azaroaren 21eko 12/2006 Foru Legeak, Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzkoak balorazio-ponentzia derrigor eguneratzeko jartzen duen bost urteko epea.

Udalak ez du eguneratze fiskalari buruzko planik, zergadunek EIOZean eta tasetan autolikidatutako zenbatekoak egiaztatzeko.

Diru-sarreraren aurrekontu bateratuko kontusailen lagin baten gainean azterketa egin ondoren, aplikatutako tasak oro har zuzen aplikatu eta kontabilizatu direla egiaztatu dugu.

Hona gomendatzen duguna:

- *Balorazio-ponentzia Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko azaroaren 1eko 12/2006 Foru Legearen aurreikuspenen arabera berrikustea.*
- *Tasei eta EIOZari buruzko zerga-ikuskapeneko plan bat ezartzea.*

VI.7. HIRIGINTZA

Barañaingo Udalak bere baliabideen eta besterenen bitartez egiten ditu hirigintzako lanak. Honako pertsona hauek daude atxikita Hirigintza Alorrari:

- Bi administrari.
- Udaleko obra-lantaldearen arduradun bat.

Horrez gainera, 2014an Udalak hirigintza-gaietarako kanpoko aholkularitza bat izan du, era honetan osatua:

- Arkitektura enpresa bat: haren zerbitzuetarako 2013ko ekitaldian 18.148 euroko betebeharrak aitortu ziren; halaber, proiektuak idazteko eta obren zuzendaritzekin lotutako zerbitzu gehigarriengatik 34.218 euroko betebeharrak aitortu ziren.

- Ingeniaritza enpresa bat: haren zerbitzuetarako 2014ko ekitaldian 8.796 euroko betebeharrak aitortu ziren, eta beste 2.117 euro zerbitzu gehigarriengatik.

Barañaingo Udaleko hirigintza-antolamenduko plan orokorra (HAPO) Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren martxoaren 7ko 137/1991 Foru Aginduz onartu zen. Planeamendu hori ia-ia osorik beteta dago.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legeak hiru urteko epea ezarri zuen –2006ko apirilera bitartekoa– indarrean zeuden planeamenduak homologatzeko eta moldatzeko. Gaur egun arte, Barañaingo Udalak ez du abiatu Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legean ezarritakora egokitzeko tramiterik.

Lurzoruaren Udal Ondareari dagokionez, Barañaingo Udalak, 2010eko otsailaren 25ean, inbentarioaren ezarpena eta Lurzoruaren udal Ondarearen Udal Erregistroaren sorrera erabaki zituen.

Une honetan, erregistroan dagoen finka bakarra 215 eta 213 m²-ko bi finkek osatzen dutena da, "maisu-maistren etxeak" deitutakoa. Bi finka horiek segregazio bidez lortu ziren, eta 2013ko irailaren 27an Osoko Bilkurak hartutako erabakiaren bidez, babes publikoko araubideren bati lotutako etxebizitzak eraikitze bideratu ziren.

2013ko irailaren 27ko erabaki horretan bertan aitortu zen aipatutako lurzatia besterengarria zela, eta Lurzoruaren Udal Ondarean sartu zen.

Hirigintza-hitzarmenen erregistroak hiru jasotzen ditu: bat 2006koa, beste bat 2008koa eta hirugarrena 2012koa; 2013koaren aldean, ez da aldaketarik izan.

2014ko ekitaldian zehar, ez da aldaketarik izan hirigintza-jarduketetan. Azkenak 2013ko ekitaldian egindako aldaketak izan ziren; honakoak dira: HAPOren UC-3B Unitatearen aldaketa puntual egituratzailea, Sustapeneko kontseilariaren 97E/2013 Foru Aginduaz 2013ko irailaren 2an behin betiko onetsitakoa, eta UC-21 aldaketa egituratzailea, data bereko 78E/2013 Foru Aginduaz onetsitakoa.

Hona gomendatzen duguna:

- *Hirigintza-planeamendua Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen espezifikazioetara egokitzea.*

- *Lurzoruaren Udal Ondarea Udalaren gainerako ondasunetatik bereizirik kudeatzea, lursailei eta eskudiruari dagozkien sarrerak eta irteerak bereizita erregistratuz.*

VI.8. BARAÑAINGO AUDITORIOAREN FUNDAZIOA.

2003ko urtarrilaren 17an, Barañaingo Udalak "Barañain Auditorio Fundazioa" delakoa eratu eta bere babespean hartu zuen. Fundazio honen xedea Barañaingo arte eszenikoen zentroa, Udalarena, kudeatu eta administratzea da.

I. eranskinean, aldeko iritzia duten urteko kontu auditatuak gehitu dira.

2014ko abenduaren 31n, Fundazioaren plantilla osatzen zuten langileak sei ziren guztira; ez da, beraz, aurreko ekitaldiaren aldean alderik izan.

Fundazioak, 2014an, 616.522 euroko diru-sarrerak izan zituen, eta 617.662 euroko gastuak egin zituen; beraz, 1.140 euroko defizita izan zuen. 2013an, diru-sarrerak 581.157 eurokoak izan dira eta gastuak, berriz, 604.414 eurokoak; 23.257 euroko defizita izan da, beraz.

Udalak Barañaingo Auditorioa Fundazioari 2014ko ekitaldirako egindako ekarpena, aurrekontuko kontusail izendun batean aurreikusia, 2014ko martxoaren 20an formalizatu zen, hitzarmen-programa baten bidez, 70.000 euroko zenbatekoan. Nafarroako Gobernuak, halaber, 34.520 euroko diru-laguntza eman zuen, aurreko ekitaldikoaren ildotik.

2014ko abenduaren 31n, Fundazioaren kontabilitate-ondare garbia positiboa zen, 13.059 euroko zenbatekoarekin (2013ko abenduaren 31n, 14.200 euro positibokoa zen).

Hona gomendatzen duguna:

- *Fundazioaren urteko kontuak Udalaren kontu orokorrari eranstea, eranskin gisa gutxienez.*
- *Kontabilitate-sistema bat ezartzea, Fundazioaren jarduerak daukaten kostua ezagutu ahal izateko.*

Txosten hau auditore Jesús Muruzabal Lerga jaunak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2015eko azaroaren 12an
Lehendakaria, Helio Robleda Cabezas

